

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## BERNEDOKO UDALA

## Behin betiko onestea 1/2022 kreditu gehigarriaren espedientea

Bat etorri Toki Ogasunak arautzen dituen Legeak 150. artikuluan xedatutakoarekin, eta inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez 1/2022 kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, espediente hori behin betiko onetsita geratzen da, era honetan:

GASTUEN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
1531.609.001	Kaleetako plakez hornitzea eta haiak jartzea	16.940,00
341.481.000	Kirol jarduerak	2.000,00
342.227.001	Kudeaketa eta sorosle zerbitzua	2.200,00
432.601.000	Ekipamendurako lurzatia eta autokarabanetarako aparkalekua urbanizatzea	8.000,00
943.434.004	Kontzejuei egindako ekarpenak gastu orokorretarako	11.456,30
<b>Gastuen aldaketaren zenbatekoa, guztira</b>		<b>40.596,30</b>

Zenbateko hori honako baliabide hauen bidez finantzatuko da, eta espedientea parekatuta eta defizitik gabe geratuko da:

DIRU SARREREN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
870.01	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	40.596,30
<b>Diru sarreraren aldaketaren zenbatekoa, guztira</b>		<b>40.596,30</b>

Udal honetako kreditu gehigarria behin betiko onesten duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Bernedo, 2022ko maiatzaren 3a

Alkatea

RUBEN MARTINEZ CRESPO